

Liburu ta aldizkari berriak.

---

### "ORBELAK"

Onatx gure Kerexeta'tar J. jaunak ("Arantzibia"), YAKIN'en zuzenbidera bidali deuskun lipotu polita. ORBELAK daroa izen-buru. Bere-bereak dira, bere biotzari dariozan zotin beroak. Udazkenean aizeak jolasean dabiltzan orbelen erara, alde batetik eta bestetik, toki guztietan sartu naiean, biotz guztiak olerkari biurtu naian. Orrelakoxeak dira zure ORBELAK: aizeak aidean daroiazan olerki bigun ta xamurrak. Gizonaren biotza berez da olerkaria, pena benetan sarritxoegi biozkada orrek bakoitzaren barruan ittota gelditzea! Betoz ordu onean zure olerkiak euskal kultura egiten ari gareanok, beti filosofi ta teoloji ta jakintza artean aspertu ez gaitezen. Gaurkoz ezin dot bete zure guraria, berriro irakurri bearra dot, danak onenak izan ez yatazan, eta bakarreko idazkitxo batean erantzungo deutsut zeintzuk izan yatazan gogokoan.

### "ZERUKO ARGIA"

Ona nun egun batetik bestera nola eldu zaigun gure aldizkari maitea. Zai ta zai geunden. Baiña argi esan digu bere atzerakuntzaren zergatik: "Zerbaki au atzeratua dator bearbearrezko baimenen zai egon garealako". Beste tankera bat eman diote, gure Aita Kaputxinoak; guziz eraberrituta atera digute, udaberri bat bezela. Urduri daude, ordea, asmatu duten ala ez. Nere iritzia jakin nai izanik, ona: "asmatu duzute", eta ederki asmatu ere. Tipo ori da gaurko egunean geien erabiltzen dana eta geien irakurtzen dana. Guzion lana dala diozute euskera lantzea. Bai alaxe da, guk geurez otoi diogue YAKIN'en arripedun guziei ezagutu dezate-la ZERUKO ARGIA, ain txabelin agertu bazaigu bere amabi orrialdekin, Periodiku tankera ta neurrian argazkiz apaindua eta bi koloretara. Gure asmorik onenak aldizkari orrentzat. ZORIONAK! eta Milla osker! ain txalogarri lan dagizuen Aita Kaputxinoori.